

**2009-07-16**

## **GERRA ZIBILA ETA BERE ERBESTEAK EUSKAL LITERATURAN. DESERRITIK UTOPIARA AMERIKETAN**

**Mari Jose Olaziregi**

Letren Fakultatea, EHU/Center for Basque Studies, University of Nevada (Reno)

Hitzaldi honen xedea euskal narratibak Ameriketaranzko erbesteratzea nola irudikatu duen aztertzea izango da.

Gure helburua, hortaz, ez da izango erbestean sortutako euskal literaturaz jardutea, edo erbesteaz mintzo diren euskal lanak iruzkintzea, Amerika nola irudikatu den ikertzea baizik. Horretarako, Amerikaren errepresentazioak aztertzeko, egun kritika postkolonialaren baitan E. Said, Homi Bhabha, edo G. Spivakek iradokitako metodologia, kontzeptu eta ikuspuntuez baliatuko naiz, euskal literaturan, orain artean behintzat, gutxitan erabili den metodologiaz.

Amerika, beraz, euskal literaturak sortutako BESTE gisara aztertuko dugu, eta euskal narratiban izan duen bilakaeraz hausnarketa egingo. Aztergai izango ditugun liburuen artean, besteak beste, Txomin Arrutiren *Loretxo* (1937), Jose Eizagirreren *Ekaitzpean* (1948), J. A. Irazustaren *Bizia garratza da* (1950), Martin Ugaldereen *Itzulera baten istorioa* (1990), Aingeru Epaltzaren *Tigre ehizan* (1996), Xabier Montoiaren *Baina bihotzak dio* (2002), edo Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* (2003) aipa genitzake.

### Bibliografia

Txomin Arrutiren *Loretxo* (1937)  
Jose Eizagirreren *Ekaitzpean* (1948)  
J. A. Irazustaren *Bizia garratza da* (1950)  
Martin Ugaldereen *Itzulera baten istorioa* (1990)  
Aingeru Epaltzaren *Tigre ehizan* (1996)  
Xabier Montoiaren *Baina bihotzak dio* (2002)  
Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* (2003)